

AMERIKETAN EUSKAL TESTU ZAHARRAK ARANTZAZUKO AMA BIRJINARI BURUZ

Bilbo, 1992-II-28

Fr. Luis Villasante

Aurten betetzen dira bostehun urte Amerikak aurkituak izan zirela. Txosten hau, bada, alde horretatik behintzat, garai egokian datorrela esango nuke, hango gauzez ari denez geroztik.

Mitxelenak, bere *Textos Arcaicos Vascos* delakoan badakar testu zahar bat Arantzazurekin zer ikusi duena. Aita Luzuriagaren *Paraninfo Celeste*, Mexicon XVII. mendean agertutako liburutik hartua (1).

Nik gaur hemen aurkeztu nahi ditudanak ere XVII. mende horretakoak dira eta Luzuriagak dakarrena baino 40 urte lehenago Liman inprimatuak.

Oraingo hauek Ibon Sarasola jaunak ere ez ditu aipatzen bere bilduman (2).

Jaun hauek desenkusatzeko, esan dezadan gaur aipatuko dudan liburua pratikan ezezaguna eta topaezina dela. Aita Adrián Lizarralde, Arantzazuko Santutegiaren historia idatzi zuenak, aipatu aipatzen du, bai, bere liburuaren hasieran, baina bistan da ez duela ikusi. Egiten duen aipamena bibliografietatik hartua izan da (3).

Arestian izendatu dugun *Paraninfo Celeste* delakoan, orrialde-bazterrean, hots, "in margine", egiten da gaur honera dakardan liburuaren aipamena (4). Hori konprenitzeko, jakin behar da *Paraninfo Celeste* Mexicon agertu zela 1686. urtean eta oraingo hau Liman (Perú) 1647. urtean.

(1) LUIS MICHELENA, *Textos Arcaicos Vascos*, Minotauro, Madrid, 1964, p. 165.—3.2.13 Predicación de los franciscanos contra la brujería.

(2) IBON SARASOLA, *Contribución al estudio y edición de los textos antiguos vascos*; Donostia-San Sebastián, 1990.

(3) ADRIÁN DE LIZARRALDE, *Historia de la Virgen y del Santuario de Arantzazu*, 1950; ikus XXIX. orr.

(4) LUZURIAGA, o. cit., libro I, cap. VI, folio XVII.

Vinson-ek bere euskal bibliografian ez du egiten gure liburuaren aipurik. Jon Bilbaok, berriz, bai (5), baina agerian dago honek ere ez duela liburua bera ikusi. Bibliografi katalogoetarik ari da, seguraski.

* * *

Baina hemen, dagoeneko, bitxia den gauza batekin egiten dugu topo. Hartu Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia*, eta hara zer dakarren: "Historia de Nuestra Señora de Aránzazu", Lima 1646. Egilea, berriz, *Juan de Ayllón*.

Jon Bilbaok, esan dudana bezala, ez du, seguraski, liburua ikusi eta bibliographi katalogoetatik ari da.

Aita Adrián Lizarralde 1950ean agertutako bere *Historia de la Virgen y del Santuario de Aránzazu* liburuan, badakar lehen orrietan Bibliografía orokor bat Arantzazuri buruz eta han ere liburu hau agertzen da Jon Bilbaok dakarren titulu eta data berberaz. Baina Lizarralde badakar jarraian baita Aita Luzuriagak *Paraninfo Celeste* delakoan dakarren aipamena ere, eta esan behar da honek beste titulu eta data bat dakarrela. Lizarralde, bada, bata bestearen ondoren dakartza biak, bi liburu balira bezala. Berak ez du esaten bi liburu direnik, ez daki eta, baina hala du itxura. Ageri da Lizarralde ere ez zuela liburua bera eskutan izan, eta hala uzten du gauza (6).

Zer gertatu da hemen? Bi liburu dira, ala bat? Neretzat ez dago duda-izpirik: ez da izan liburu bat baizik.

Nondik eta nola sortu da orduan nahaspila? Uste dudana esango dut: gure Ordenako bibliografo zaharrek latinez egiten zuten beren lana. Liburuaren tituluak ere latinera aldatuak ematen zituzten. Eta, jakina, batzutan ez zen erraza izango tituluok latinera zehazki itzuliak ematea. Esate baterako gure liburuak orria beteko titulua du (7). Orduan XVIII. mendeko frantziskotar bibliografo Juan de San Antoniok zer egin zuen (nere ustez)? Hartu liburua, Arantzazuri buruz mintzo dela ikusi eta era

(5) JON BILBAO, *Eusko Bibliographia*, Vol. I, p. 399.

(6) LIZARRALDE, o. cit., p. XXIX.

(7) Hona hemen liburuaren titulu osoa: *Relacion / de la grandiosa / fiesta, que se hizo en / este convento de N.P / San Francisco de / Jesús de Lima. / A la colocacion de la mi- / lagrosa imagen de N. Señora / de Aransazu, que a expensas / de Juan de Urrutia, pode- / roso amante de la Virgen se truxo / de España. / Compuesta por el Padre / fray Juan de Ayllon, Predicador mayor del mismo / Convento de N.P.S. Francisco de Iesus de Lima, y / oy Procurador General de Corte de todas las / Provincias del Perú, natural de / la misma ciudad. / Dedicada / a N.M.R.P. Fr. Juan / de Durana Padre de la San- / ta Provincia de Cantabria, / Lector iubilado, Calificador / del Santo Oficio y Comis- / sario General de todas / las del Perú, etc. / Con licencia; impresso en Lima, / por Pedro de Cabrera. Año de 1647.*

honetara jarri zuen latinez: *Historia Dominae nostrae de Aranzazu*, Limae 1646. Baina horrela ez da ematen zehazki ez liburuaren gaia eta ez titulua; eta urtea ere ez. Liburuak berak portadan 1647 jartzen du. Egia da, ordea, lehen orrietan datozen iritzi, baimen eta dedikatorian 1646 jartzen dela eta agian hortik hartu zuen bibliografoak liburuaren data.

Guzti hau esplikatzeko hipotesi hau ere egin daiteke. Bibliografoak eskutan zuen aleak gaineko orria edo portada falta zuela, eta orduan liburuaren data jakiteko aurreko orriak agurtu behar izan zituela, eta horietan, bai, 1646.urtea ageri da.

Gero, XX. mende-hasieran, Sbaralea frantziskotar bibliografoak ere jokalege berbera segitzen du, Juan de San Antonio horri segituz, seguraski.

Dudatatik irteteko, Arantzazuko bigarren bibliotekari den Jose M.^a Beristainek idatzi zion karta bat Peru-n mixiolari dagoen gure Probintzi-ko Aita Ignacio Urretavizcayari, eta baita honek errantzun ere 1990eko urtarrilaren 21ean. Esaten du, bada, egon dela Limako frantziskotarren komentuko bibliotekaren kargudun den emakumearekin. Eta honen erantzuna hauxe izan zen: berak ez duela ezagutzen liburu bakar bat baizik, garai horretan Arantzazuri buruz mintzo dena, eta ez duela uste besterik dagoenik ere.

Gainera, bibliografo zaharren artean ez du —nik dakidala— inork ere esaten bi liburu direnik. Batak ekarriko du titulua eta urtea era batera eta besteak bestera, hori bai, baina denak ari dira liburu bat baizik ez delako ustetan.

Eta bibliografi istilu honi buruz ez noa deus gehiago esatera.

* * *

Arantzazuri buruz Aita Ayllon-ek inprimatu zuen liburu bakarra eta guk ezagutzen dugun liburu horren ale bakarra Limako frantziskotarren komentuan dago (8), eta horren fotokopia berriki Arantzazura ekarri izan da, eta hori erabili dut nik lan hau prestatzeko. Beste alerik beste inon ba ote den nik ez dakit, baina posible da.

Noiz eta nola lortu genuen fotokopia hori? 1989an izan zen. Aita Lizarralde eta Juan de San Antoniok egiten duten aipamena kontutan harturik, Arantzazuko bibliotekariak (Aita K. Zubizarreta eta Aita J.M. Beristain) pentsatu zuten Limako frantziskotarren komentuan egon zitekeela zerbait. Orduan Arantzazuko bibliotekari-ordeak (J.M. Beristain)

(8) Lima-n bi frantziskotar komentu daude, bi Probintzi desberdinetakoak. Batari deritzo Hamabi Apostoluena, eta besteari San Francisco Solanorena. Gure liburua gordezen duena lehenbizikoa da.

eskutitz bat egin zion gure Probintziko fraide den eta Santo Domingon bizi den Aita Victorio Beain-i. Honi idatzi zion oso ezaguna duelako eta bereziki Liman mixioak predikatzen ibilia zelako. Aita horrek, berriz, Jon Kepa Guarrotxenari idatzi zion. Hau ere fraide izana, gero irtena, eta gaur Limako Euskal Etxean lan egiten duena da. Eta berau izan zen komentu horretako bibliotekara joan eta liburu horren fotokopia lortu zuena.

Limatik 20ren bat kilometrotara, Naña izeneko herrian, Konzezioko monjen komentu bat dago eta bertako Abadesa Arantxa Sorazu, Zestoako alaba eta Ama Sorazuren tarterikoa denak, fotokopia hori maitekiro enkuadernatu zuen. Eta azkenik Aita Martin Lopetegik ekarri zuen Santo Domingotik Arantzazura.

Jon Kepa Guarrotxenak karta batean dio Limako ale horrek orri bat eskas duela. Egia esan, nik fotokopia aztertu dut eta huts hori non egon daitekeen ez dut asmatzen.

Liburuaren orrialdeak 102 dira.

Liburuaren neurriak, berriz, luzean 195 mm.; zabalean 130 mm.

Bidezkoa zen liburu aurkiberri honen lehen albistea *Arantzazu* aldizkariak eman zezan, eta hala izan da. Gure idazkari J.M. Satrustegi jaunak idatzi du artikulu bat joan den urtean (9). Aitortu behar dut liburuaren kopia neronek eman nionarren, galdua bezala sentitzen nuela neure burua, liburu horren nondik norakoaz ezin jabetuz, eta Satrustegiren artikulu koskorak asko lagundu zidala. Eskerrak eman nahi dizkiot, bada.

* * *

Delako liburuaren azalean —portadan— hiru pertsonen izenak aipatzen dira: Juan de Urrutia, P. Fr. Juan de Ayllón eta M.R.P. Fr. Juan de Durana.

Esan dezagun zerbait bakoitzari buruz:

1. *Juan de Urrutia*. Pertsona hau, liburuan bertan esaten denez, tolosarra zen, baina Liman bizi zena. Jaun honi bururatu zitzaion Espainian Arantzazuko Ama Birjinaren antza zuen irudi bat eginaraztea, artzain, ardi eta guzti, eta dena kutxa batean sartuz, itsasontziz Ameriketara ekartzea. Callaoko portuan lur hartu zuen kutxa horrek. Handik Limara eramana izan zen, gertu baitago. Bi hilabete eta erdi egin zituen kutxak

(9) J.M. SATRUSTEGUI, "Retazos de la historia menuda de Arantzazu", *Arantzazu*, agosto-septiembre 1991, 29-30.

Juan de Urrutiaren etxean. Bitartean Limako frantziskotarren komentuko elizan obrak egin ziren Ama Birjinaren irudi berri honi tokia prestatzeko.

Dena gertu zegoenean, izugarrizko festa antolatu zen Liman Ama Birjinaren irudia Juan de Urrutiaren etxetik komentuko elizara eraman eta han kokatzeko. Prozesioa hirian barna, meza, predikua etab. egin ziren. Zezenketa ere egon zen. Askotan entzun dugu euskaldunak zezenketen etsaiak izan direla eta izan behar dutela, baina lehenagoko mendentan ez dut uste beti hala izan denik. Loiolako San Inazio kanonizatua izan zenean, efemeride hori ospatzeko, Azpeitian zezenak kurrutu zirela uste dut, etab. Dena dela, Juan de Urrutiaren kabuz egin zen dena eta berak bere sakeleko diruaz ordaindu zituen kostuak. Bere asmoak zeinen ederki gauzatu ziren ikustean, pozaren pozaz gaztetu egin omen zen Urrutia hori: “bolvió a los años de gallardo moço”, esaten du Ayllonek liburuan (10).

2. Liburuaren azalean ageri den bigarren pertsona, liburuaren bera- ren egilea da, hots, *P. Fr. Juan de Ayllón*, “Predicador mayor del convento de N.P.S. Francisco de Jesús de Lima..., natural de la misma Ciudad” (Limakoa, beraz).

Ayllón Segovia aldeko herri bat duzue, noski. Ez dakigu fraide honen gurasoak herri horretakoak ziren; hor nonbait ingurukoak, behintzat, baina Ameriketara joanak. Semea, berriz, Ameriketara, Liman konkretuki, jaioa eta Liman bertan frantziskotar egina. Berak, euskaraz mintzo dela, *errico seme* deitzen dio bere buruari, eta erdarara itzultzen du “criollo” (11). “Criollo” hitzak, dakizuten bezala, horixe esan nahi du: espainiar gurasoetarik Ameriketara jaioa.

Ezagun da Ayllón honek hurbildik ezagutzen zituela euskaldunak, frantziskotarren elizara joaten zirelako edo, eta euskaraz ikasteko zaletasun zerbait ere izan zuela. Zenbatetaraino menderatu ote zuen euskara, ordea, ez dakigu. Hona hemen euskaldunei buruz egiten duen laudorioa:

“Alentado pues mi espíritu con el amor que debo a la nación Viscayna, de quien experimenté constante siempre la fidelidad, y repetida la correspondencia en los favores, les hurté un poco de Bascuense por restituírle sonoro, y que entienda el mundo que no es tan corto el language, que por mí habló tan terso y corriente con el dichoso Pastor, a quien apareció tanta felicidad en María” (12).

(10) Ikus 16. folioa.

(11) Ikus 37. folioaren gibelaldea.

(12) Ikus 24. folioa. Pasarte honek badu eite edo antz zerbait (idei-etan) Axularren *Gero*-n ageri den beste batekin. Ikus Ax 10.

Ayllón honek badu oraindik beste liburuska bat Liman bertan 1630ean agertua, latinezko bertsotan egina, Japoiko frantziskotar martirien omezez (13).

3. “*M.R.P. Fr. Juan de Durana, Padre de la santa Provincia de Cantabria*”. Beroni dedikatua dator liburua. Durana Arabako herrixka bat da, Arrazua Ubarrundia udalerrikoa, Zadorra ibaiaren ezker aldean kokatua (14). Ez dakigu, halere, Aita Durana bera hor jaioa ote zen edo jatorria hor zuen soilki. Dena den, arabarra zela dirudi.

Fraide hau Arantzazun irakasle egona zen, gero Ameriketara joana eta han kargu handiak izan zituen. Seguraski euskaldun zen, garai hartan Arabako lautadan euskaraz egiten baitzen. Aita Durana euskalduna zela jakiteko liburu honetan bada frogabide moduko zerbait. Elkar hizketatxo bat dator liburuan Arantzazuko Ama Birjinaren eta Aita Duranaren artean, eta elkar hizketatxo hori euskaraz dago. Ama Birjinak euskaraz agurtzen du Aita Durana. Eta Aita Duranak euskaraz erantzuten dio Ama Birjinari. Hau Ayllonen asmaketa da, noski, baina Ayllonek ez zuen —bistan da— holakorik egingo, Aita Durana euskaldun zela ez baleki.

Archivo Ibero-Americano aldizkariak, frantziskotarrek Ameriketara XVII. mendean egindako lanari buruz ateraberi duen liburu gotorrean, Aita Duranaren izena zortzi aldiz gutxienez agertzen da (15).

* * *

Ikus dezagun orain, gaingiroki baino ez bada ere, liburuaren edukina.

Sei kapitulu ditu guztira, eta gero eraskin bat. Baina kapitulu izenik ez da jartzen: “*Primero*”, “*Segundo*” eta hola egiten du gaiaren sailkapena.

Lehenbiziko kapitulua. Kapitulu honek aparteko garrantzia du, ene ustez. Arantzazuren hasiera nola izan zen kontatzen du, eta, dirudienez, ura —hots, berriak— iturritik hartuz kontatu ere. Tokiari buruz egiten duen deskribapena miresgarria da. Hango mendi, ibai, piztia, arbola, bide eta abarren kontaketa zehatzak dakartza, alegia. Bertan Arteak eta Teologia irakasten direla eta, hain zuzen, Aita Durana jakingai horien irakasle izan zela Arantzazun dio.

Arantzazu inguruan bizi diren piztien artean tigreak aipatzen ditu. Baina jakin behar da gaur “*lince*” esaten zaionari deitzen ziotela tigre.

(13) “*Poema de las fiestas que hizo el convento de S. Francisco de Jesús de Lima a la Canonización de los 23 Martires del Xapón*”; Lima 1630; 87 págs.

(14) A. Baratciart, Iparraldeko euskal idazlea, Duranan jaioa zela baieztatuz, eginberri du E. Knörrek artikulua bat prentsan.

(15) *Archivo Ibero Americano*. Actas del III Congreso Internacional sobre los franciscanos en el Nuevo Mundo (siglo XVII); enero-diciembre 1990.

Neronek ere Arantzazuko baserritar zaharrei entzuna diet lehenago Arantzazun tigreak egoten zirela. “Venta de Arricruz” ere aipatzen du bere izen eta guzti, eta hauxe esaten du: “de cuyo sitio toman camino para Alaba y Rioja” (16). Eta hala da, Calahorrako galtzada deitzen zen antioaleko bide hori igarotzen baitzen hortik. Gaur erdi galdua dago bide zahar hau une batzuetan, behintzat.

Arantzazuko errekez, berriz, esaten du Guezalsan (sic) harkaitz artean ezkututzen dela eta lekoa-laurden bat igarorik, berriz ere agertzen, Oñati aldera joaz.

Nork esan zizkion “criollo” horri hainbeste xehetasun hain zehatzak? Aita Duranak ez ote? Seguraski Aita honek, arabarra izanik, behin baino gehiagotan hartuko zuen Arrikruzko galtzada zahar hura.

Gainerako kapituluetan kontatzen da nola egin zen Arantzazuko Ama Birjinaren irudiaren kopia bat, itsasoz Ameriketara eramane eta Limako frantziskotarren elizan jarri, gertaera hau handikiro ospatuz. Baina horretaz mintzatu gara jadanik eta ez goaz berriz errepikatzeraz.

Nolakoa da liburu honen idaztankera edo estiloa? Barrokoa eta kontzeptista oso. Greziar eta erromatar mitologiaren mila aipamen ditu. Zinez, ez da irakur erraza eta ez gaurko gustukoa ere, baina halakoa uste dut zela orduko usarioa. Mirakuiluak nonnahi ikusten ditu. Hori ere XVII. mendeko Espainiaren ajea zela, gauza jakina da.

* * *

Eta beste gabe, goazen liburuan datozen euskarazko pasarteak azaltzera. Bost pasarte labur dira. Horietaz gainera, badira euskarazko hitzak hor-hemen sartuak erdarazko edo euskal-erdarazko bertsotan datozenak, eta olerki batzuk erdara txarrean, euskaldunen erdara traketsa imitatu nahiz, dirudienez.

Hona hemen bost pasarteok:

1. **Aurrenengoa** (17). Ikus dezagun lehenik testu-ingurua, testua bera ulertzeko beharrezkoa baita. Saba-ko erregina esku-erakutsi handiekin etorri zen Salomon ikustera (18). Arantzazuko Ama horrelaxe etorri da Ameriketara Aita Durana ikustera, eta honako elkar hizketa hau egiten dute bion artean. Ama Birjinak —hots, “la Viscaynita Soberana”— diosala hau egiten dio Aita Duranari: *Agur mi arsaya. Mi hori erdaraz dago, noski. “Hola, mi pastor”, edo horrelako zerbait esan nahiko du.*

(16) Ikus lehen folioaren gibelaldea.

(17) Foliatu gabe dauden lehen orrietan dator, Aita Duranari egiten zaion liburuaren eskaintzan.

(18) Cf. 1 Reg. 10, 2.

Arsaya s-kin dago. *Za-*, *ze*, *zi* etab. gehienetan *s-z* idatziak dakartza liburuak, bai erdaraz eta bai euskaraz, eta hori da, ene ustez, Ameriketako zabaldu den erdara-modua; eta ahoskera horren ondorioz, bai euskaraz eta bai erdaraz, liburu honetan *s* asko dago. Adibidez: *apassible*, *serro* (cerro), **Aransazú** (azentua azkeneko bokalean jarririk), etab. (19).

Ikus dezagun orain nola erantzuten dion Aita Duranak Ama Birjinaren agurrari. Honela dakar Ayllon-ek:

“Y Vuestra Paternidad muy reverenda *veguiratuta ederra*, respondería *velarico*.”

Veguiratuta ederra. Esaldi hau berriz ere agertzen da beherago, erdal itzulpen eta guzti (20). Eta ez da dudarik han bezalaxe itzuli behar dela hemen ere, hots, “habiéndole visto tan hermosa”. Nik uste dut Ayllón hori euskaldunen ahotan entzundako esaldiez baliatzen dela liburuan.

Veguiratuta ederra respondería *velaricó* = Habiéndola visto tan hermosa —Ama Birjina, noski—, respondería de rodillas.

Velaricó. Gaur *belauniko* esaten dugu, noski. Azkueren hiztegian *belhariko* Zuberoako gauza bezala azaltzen da (21).

Eta segituan dator Aita Duranak Ama Birjinari erantzuten diona:

Cautivaturi naucam ene lastana. “Me tienes cautivado, mi amada”.

Ama Birjinari zuzendutako hitzak dira, noski, eta horregatik, emakumeari hitz egitean erabiltzen den adizkia jartzen du (egia esan “*m*” dakar, “*n*”ren orde, errataz edo): *naukan* = “me tienes (cautivado)”...

* * *

2. **Bigarren testua** (22)

Juan de Urrutiaren ahotan ipintzen du Ayllonek pasarte hau:

gloria gustia etorri da neure echera i etorriagasic (sic).

Hemen Ama Birjina *i*-ka tratatua agertzen da. Uste dut *gatic* behar lukeela esan, baina *gasic* dator, errataz seguraski.

(19) Ameriketako zabaldu den gaztelaniak Andaluzia eta Extremadurako-aren marka du, eta beste gauzen artean “seseoa” hortik dator; *ce-*, *ci*= *se*, si ahoskatzen dute, alegia. Baina Extremadura eta Andaluziara jo gabe ere, Euskalerrian, batez ere Bizkaian, seseo hori komunzki egin ohi da jende arruntaren artean, bai euskaraz eta bai erdaraz mintzatzean.

(20) Ikus 24.folioaren gibelaldea.

(21) Ikus Azkueren hiztegian *Belharika*, *belhariko* (S) de rodillas.

(22) Laugarren kapituluan dator, 18. folioan.

Beraz, itzulpena hauxe izango litzateke: “Toda la gloria ha venido a mi casa por haber venido tú”.

Jakin behar da hau ulertzeko, Juan de Urrutiaren etxean egon zela Arantzazuko Ama Birjinaren imajina bi hilabete eta erdiz, elizan egin behar ziren prestamenak egin arte. Horrekin du zer ikusi esan honek.

* * *

3. Hirugarren testua (23)

Cuidade gustia, guisonac eta andreac, saltasen daue contentuarequin.

“Toda la ciudad, hombres y mujeres, saltan de contento”.

Hitz hauek ere Juan de Urrutiaren ahotan jartzen ditu Ayllonek.

Hemen agertzen den adizkera, *daue*, bizkaierazkoa da, noski.

* * *

4. Laugarren testua (24)

Ama Birjina arantzan jartzerakoan, Ayllonek hitz hauek zuzentzen dizkio Juan de Urrutiari:

Yre viosa esta cavisen contentuz gorpucean.

Eta Ayllon berberak honela itzultzen du: “Tu corazón no te cabía de gozo en el cuerpo”.

“No te cabe” behar luke, baina berak hala dakar.

* * *

5. Boskarren testua (25).

Arantzazuko Ama Birjinari buruz ari dela, honako hau esaten du Ayllonek:

Eta milagroric andiena da ni isanda errico semea yracasi deust eusqueràs.

Pasarte hau honela itzultzen du Ayllon berberak: “Y el mayor milagro es que siendo yo Criollo, me a enseñado Bascuense”.

Beraz, “criollo” esateko, *errico seme* darabil gure Ayllonek.

Eta kasu *deust* bizkaierazko adizkiari.

* * *

(23) Ikus 18. folioan.

(24) Ikus 34. folioa.

(25) Ikus 37. folioa.

Pasarte hauezaz gainera, liburuan datozen erdal olerki eta bertsoetan badira euskal hitzak edo erdara-euskaraz egindako bertsoak eta horietako hitz batzuk bederen aipagarri direla uste dut (26).

sure amea = tu madre.

Ama hitzak gaur ez du artikulurik hartzen. Halere, bizkaieraz behintzat, txorien amari buruz edo, mintzatzean, entzuten da *amea*. Hemen Ama Birjinari deitzen zaio hala.

Iracuçi deu çuri = te mostró a ti.

Badirudi *deutsu* behar lukeela, baina horrela dator.

Veguiratuta ederra = “aviendote visto tan hermoso” (sic). Esaldi hau gorago, aurrenengo testuan ere azaldu zitzaigun.

Ondoren erdaraz *Décima* deitzen den motatako bertso bat dator (27). Bertan nik esango nuke teologi ikuskera baten puntta edo hasiera bat sumatzen dela. Ama Birjina aurkezten zaigu, alegia, Jainkoaren egontoki edo etxea bezala.

Hona hemen *Décima* delako horren zati bat:

*Oy asco eman didasu
Pues mis ojos Xauna ydoro
En vos mi Virgen xausoro
Que se puso aransazú...*

Oharrak: *Didasu*: hemen gipuzkerazko adizkiaz topo egiten dugu.

Xauna, *Xaungoicoa*, *Xausoro*. *X* honek gutigorabehera gaur euskaran daukan balioa bide du. Eta halakoa zuen orduko gaztelanian ere. Adibidez: “truxo” (gaur *trajo*), “México” etab.

Ydoro bizkaierazko hitza, gaur behintzat. Axular-ek *ediren* dakar.

Xausoro “casa solariega” itzultzen du Ayllonek. Beraz *jaunaren sorora*.

Aransazú. Toki honetan alusio bat dago hitz honen herri-etimologiari (“Vos en el Espino”).

Beherago *décima* horretan bertan datoz bizkaierazko adizkera hauek: *gagoz* eta *zagoz*.

Liburu honetan maiz agertzen da *i* bigarren pertsonaren izen ordaina, baita Ama Birjinari hitza zuzentzean ere, baina *zu*-rekiko formak ere ez dira falta.

(26) Ikus 24. folioaren gibelaldea.

(27) Ikus 25. folioa.

eman didasu, horra gipuzkerazko adizkera.

Iracuci deu çuri = “te mostró a ti” (28). *Deutsu* behar lukeela dirudi. *Iracuci deutsu çuri*, alegia.

Xaungoycoari. “al Señor de lo alto”.

* * *

Garrantzizkoak ote dira liburu honetan azaltzen diren euskal testuak? Eta hasteko, zer euskalkitakoak ote dira?

Euskalkiei buruz agirian dago, ene ustez, bizkaiera eta gipuzkera direla hor nagusi.

Garrantziari buruz ez dakit zer esan. Antzinatasun aldetik ez dira gutxiestekoak. Gainerakoan, ez dakigu Ayllon horrek zenbatetaraino menderatzen zuen euskara, baina Lima-n XVII. mende erdian euskaldunen kolonia aski ugaria zela bistan da, eta azken batean gertakizun hori du oinarrian liburuak.

* * *

Eraskin gisa. Bukatzeko, eta bide batez, aipatu nahi nuke —aipatu bakarrik— Arantzazuri buruzko beste liburu zahar bat, gaur aurkitzen zaila dena. Iparraldekoa da, gainera. Behin baino gehiagotan gogoarazi nion Lafitteri, baina berak ez zuela sekula ikusi esan zidan.

Julien Vinson-ek bere *Essai d'une bibliographie de la Langue Basque*-ren bigarren tomoan dakar (29).

Francisque Michelek ere *Le Pays Basque* liburuan aipatzen du. Liburu ttipi bat da edo zen, bertotan egina, eta 1778an inprimatua. Beronen titulua: *Aranzazuco Misterioa*. Eta tituluaren ondoren honako hau dio edo zioen liburuak: “Miracuillu hauc tradituak dira Españoletic Aranzazuco Misterioaz mintzo den liburutic, hainitz guizon handi eta zuhurrec aprobatutic, eta tratatuac asco miracuilluen artetic. Bayonan, Piarres Fauvet, Imprimatzailea baithan, Carmesetaco aldean”.

Vinsonek dio ez dela gaur liburu honen ale inprimaturik ezagutzen, baina bai eskuzko kopiak, beharbada ez osoak. Berak ezagutu omen du bat eta kopia honetatik kopia berri bat egin ere duela dio. Vinsonek utzitako paperen artean baliteke berak egindako kopia hori egotea...

Liburu honen iturria Aita Luzuriagaren *Paraninfo Celeste* delakoa da. Liburu hau, gorago esan genuenez, Mexicon inprimatu zen 1686. urtean,

(28) Ikus 24. folioaren gibelaldea.

(29) VINSON, o. cit., II, 587 orr.

eta lau urte geroago argitalpen berriak egin ziren, bai Madrilen eta bai Donostian. Biak urte berean (1690ean).

Ikusten duzuenetz, euskarazko liburutto hau ez da bestea bezain zaharra, Frantziako Iraultza baino pixka bat lehenagokoa baizik. Lapurtarrez dagoela bistan da. Eta gauza hau ez da hain harrigarria, bai baitakigu Lapurdiko arrantzaleak Arantzazura erromes etorri ohi zirela, eta gero, Espainia eta Frantziaren arteko gerlengatik hona etortzerik ez zutenean, Arantzazuren errepika edo birlandaketa bat jarri zuten, hots, Ainhoako Kaperak, eta geroztik hara joaten ziren (30).

Ea, bada, Iparraldekoen batek liburutto honen alerik edo kopiarik bederen eskuratzen duen. Halabiz.

(30) Ainhoko kaperaz ikus J. Olhagarayren liburuska.—Iparraldetik Arantzazura etorri ohi ziren Lapurdiko beilariez, ikus *Euskera*, 1989, 371.